

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5144

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 10ekoa, Kultura sailburuordearena, 2025ean Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako artxibo-funtsekin eta dokumentu-ondarearekin zerikusia duten ikerketa-proiektuetarako bekak ematen dituen.

Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko irailaren 3ko Aginduaren bidez, oinarriak ezarri ziren Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako artxibo-funtsekin eta dokumentu-ondarearekin lotutako ikerketa-proiektuetarako bekak emateko, eta 2025ean lau beka emateko deialdia onartu zen (aurrerantzean, agindu arautzailea).

2025eko azaroaren 10ean, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariak ebazpen-proposamena egin zuen, kontuan hartuta agindu horretan xedatutako balorazio-irizpideak eta jasotako eskabideak baloratzeko eratutako balorazio-batzordeak egindako aktaren edukia.

Azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei zehazten diren bekak ematea.

Bigarrena.— II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei beka-eskabideak baztertzea.

Hirugarrena.— Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorrak ere.

Laugarrena.— Dirulaguntzaren beka proiektuek 12 hilabeteko iraupena izango dute gehienez.

Bosgarrena.— Beka honela ordainduko da, hura arautzen duen Aginduaren 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

a) Lehenengo, zenbateko osoaren % 50, beka onartzen den unean, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a ikerketa-lana entregatu ondoren ordainduko da, ikerlanaren azken emaitzaren jarraipenaz arduratzen den pertsonak lana onartu ondoren.

Seigarrena.— Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

Zazpigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera, jakinarazteko eta jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 10a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

EMANDAKO BEKAK

Esp. kod.	Eskatzailea	Proiektuaren izenburua	Emandako puntuazioa	Bekaren diru-kopurua	Lehen ordainketa (2025)	Bigarren ordainketa (2026)
002-ADI-2025	Benito Conde, Cesar Javier	Arte, gusto y cultura material en las élites vascas de la Edad Moderna: imágenes del solar, la corte y el imperio en el Archivo Histórico de Euskadi (1592-1772)	79	10.000 €	5.000 €	5.000 €
006-ADI-2025	Bellei, Roxane	Análisis y caracterización de una red epistolar familiar vasca del siglo XIX, a partir del patrimonio documental conservado en la subsección "Correspondencias" del Archivo de la Casa de Zavala	63	10.000 €	5.000 €	5.000 €
003-ADI-2025	Garrido Yerobi, Ignacio	Nihil novum. Presencia, desarrollo y evolución de una familia flamenca en Gipuzkoa: los Ramery (siglos XVI-XIX)	59	10.000 €	5.000 €	5.000 €
001-ADI-2025	Rojo Sierra, Amaia	Sevilla en las gentes del País Vasco. Los lazos entre las comunidades de origen y los miembros de la nación vizcaína en el siglo XVI	70	10.000 €	5.000 €	5.000 €
Guztira emandakoa				40.000 €	20.000 €	20.000 €

II. ERANSKINA

BAZTERTU DIREN ESKAERAK

Esp. kod.	Eskatzailea	Proiektuaren izenburua	Emandako puntuazioa	Arrazoia
005-ADI-2025	Mondragon Arrese, Naia	Meatzaldeako meatzeen ustiaketa moduen eta erauzketa praktiken analisi antropologikoa	24	(1)
004-ADI-2025	Salgado Mendez, Pablo	Antología Gráfica del Fotógrafo Juanxu Rodriguez	43	(1)

(1) Lortutako puntuazioa ez da iritsi beka jasotzeko eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxienez (agindu arautzailearen 8.2 artikulua).